

# Demokrazia eta legea ez dira gauza bera

## Jokin Bildaratz

Tolosako alkate ohia, Eudeleko presidente ohia eta EAJko senataria

**K**ataluniako egoe-  
ra nahasian hain-  
bat hari muturri  
tiraka dabil Es-  
painiako Gober-  
nua, korapiloa  
ahal den eta gehien trabatzeko. Azken-  
aurreko tenkada independentziaren  
inguruko galdeketa egin dadin  
laguntzeko prest azaldu diren alkate-  
en aurka egin du Alderdi Popularraren  
exekutiboak, modu maltzurran jokatuz.  
Azkena, oraingoz, Generalitatearen  
interbentzio ekonomikoa egiteko  
saikera da. Argi dago urriaren 1a arte  
bide honi jarraipena emango diotela.

Alkate eta Euskadiko Udalen Elkar-  
teko presidente izan naizen heinean,  
ongi dakit udalburuen lana dela poli-  
tika mailan aberasgarriena. Herriar-  
ren kezak eta pozak zuzenean jasoz-  
ten ditu alkateak, baina, aldi berean,  
lehen lerroan lanean diharduen or-  
dezkarri ahulena ere bada. Horretaz  
baliatu nahi du Mariano Rajoyk kata-  
luniarren erreferendumerako apus-  
tuan beste zirriritu bat irekitzeko.

Rajoyk berak modu baldarrean  
adierazi nahi izan zuen bezala, herri-  
tarrek aukeratzeko dute alkatea, horre-  
gatik, inork imajinatzeko ez du alkate  
bat bere herriaren borondatearen  
aurkako erabakiak hartzen? Erraza da  
Moncloako bulegoetatik telefona  
hartu eta hori exijitzea, baina ardura-  
gabekeria politikoa bat ere bada.

Aristotelesek esan ohi zuenez, korapilo  
bat askatu ahal izateko, aurreneko  
egin beharra korapiloa nola sortu  
den jakitea izango litzateke. Rajoyk ja-  
kin beharko luke Kataluniako gizarte-  
a oso haserre dagoela azken urteotan  
Espainiako Gobernuak eginiko kudeaketa  
txarrekin, 2010. urteetik hona bereziki.  
Beraz, gai hau konpondu nahi badu,  
atzera begiratu beharra dauka eta non  
huts egin den ikusi. Egia esanez, urriaren  
1eko erreferenduma bere arazoan artean  
txikienetako izan daiteke.

Aristotelesi jaramon eginez, azter  
dezagun zergatik sortu den giro hau  
Katalunian. 2003. urtean hasi zen ara-

zoa ari gara bizitzen orain. Orduko  
hauteskunderetan Artur Mas buru  
zuen CIUK eskuratu zuen eserleku  
gehien Parlamentuan, baina Tinelleko  
Itunari esker, ERCK PSCKo Pasqual  
Maragalli eman zion babes Generalitateko  
Presidentea izan zedin. Horrela  
egin zuen hurrengo legegintzaldian  
ere, Kataluniako Estatutua negoziatu  
behar zen legegintzaldian.

Estatu mailan, Zapatero zen sozia-  
listen hautagaia Moncloa biderako  
konpainian eta Kataluniako Legebil-  
tzarrak onartutako testua errespeta-  
tuko zuela agindu zuen. Esaldi borobil  
hura esan eta gutxira, sozialistak bi  
gobernuetako agintean zirela, zapata-  
riak zapata ardurak utzi eta arotzare-  
nak hartu zituen eta Kataluniako Le-  
gebiltzarrak onartutako estatutua ze-  
pilatu egin zuen, Alfonso Guerrak  
Sestaoko mitin batean lotsarik gabe  
esan zuenez. Azkenean, Gorteetatik  
atera zen dokumentuak ez zeukan zer-  
rikusirik sartu zenarekin.

Mozketak mozketa, Estatutuak au-  
rrera egin zuen eta Kataluniako her-  
riak baiezeko botoa eman zion. Erre-

ferendumean parte hartzea eskas xa-  
marra izan zen, eta hori errie egoteko  
moduko abisua izan zen. Ilusioz bete-  
riko momentu bat izan beharrean bi  
lagunetik bat ez zen bozkatzera joan,  
eta horrek zer pentsatua eman behar  
zuen. Hori gutxi balitz, Rajoyren PPK  
Estatutu berriaren kontrako sinadurak  
bildu zituen; gehienak Kataluniatik  
kanpokoak ziren, baina jokabide  
horrek argi erakutsi zuen PPri bost  
axola zitzaiola Erkidego baten kontra  
joatea, trukean boto batzuk eskuratu  
ahal bazituen.

Benetan harrigarria da Kataluniako  
Legebiltzarrak, Espainiako Kongre-  
suak eta Senatuak, eta kataluniarrek  
onartutakoa, Auzitegi Konstituziona-  
lak nola utzi ahal duen bertan behera.  
Hor dago gakoa, hor dago korapilo  
honen guztiaren hasiera. Benetan  
hausnartzekoa da nola bultzatza deza-  
ken bide hori Alderdi Popularrak.

Horren guztiaren ondoren, galdera  
bat sortzen da: zer egin dezake gizarte  
batek bere borondate politikoa behar  
den bezala kontuan hartzen ez dela  
ikusten duenean? Argi dago Katalunia  
eta Euskadi beti izango garea gu-  
txiengoak Estatuan; zer egin behar  
dugu gizartearen iritzia ezagutzeko?  
Ezin dela jakin esan nahi al digute?  
XXI. mendeko politikan gizarteari iri-  
tzia eskatzeko debekuak ez du ez han  
ka ez bururik.

Konstituzionaleko letratua den Xa-  
bier Arzozek, aipatzen duen moduan,  
bai XIX. mendearen bukaeran eta bai  
ta XX. mendearen hasieran ere, bai  
G. Jellinek eta K. Rennerrek gehien-  
go/gutxiengo jokoak aztertzerakoan,  
kontuan hartu behar dugu hainbat  
errealitate nazional estatalak diren  
errealitate nazionalak baino txikiago-  
ak izango direla; eta nazio bat bestea  
baino handiagoa izateagatik ezin dio  
imposatu besteari bere nazio ezberdin  
horren ikuspegia.

Horixe da benetako arazoa: ez PPK,  
ezta PSOEek ere ez dutela sinesten Es-  
tatuaren errealitate nazional ezberdinak  
daudenik, eta nazio bakoitza subjektu  
politikoa bat denik; subjektu horrek  
bere nazioari dagozkion oinarriak  
erabakitze eta aukeratzeko eskubi-  
dea duenik. Hortik aurrera, demokra-  
ziaren aurkako jarrera bat nagusitzen  
da. Demokrazia eta legea ez dira ber-  
dinak, azken finean beti demokrazia  
legeen gainetik dago eta egongo da.

**Ez PPK, ezta PSOEek ere ez dute sinesten Estatuaren errealitate nazional ezberdinak daudenik, eta nazio bakoitza subjektu politikoa bat denik; subjektu horrek bere nazioari dagozkion oinarriak erabakitze eta aukeratzeko eskubi-  
dea duenik. Hortik aurrera, demokraziaren aurkako jarrera bat nagusitzen da**